

GIZARTE-LARRIALDI EGOERETARAKO ARRETA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Zerbitzuei buruzko informazioa eta orientazioa

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzuak egunean 24 orduz lan egiten du, gizarte-larrialdiko egoerei berehala erantzuteko ([2.6 fitxa](#)). Gizarte-larrialdiko egoeratzat jotzen da aurreikusi gabeko gertaera baten ondorioz gertatzen dena, batez ere:

- Ustekabeko babesgabetasun-egoerak: galera eta/edo desorientazioa; Zaintzaileak bertan behera uztea edo ezustean ez egotea; genero-indarkeria...
- Salbuespenezko egoerek eragindako gizarte-larrialdiak: zirkulazio-istripuak, suteak, uholdeak edo bestelako ezbeharrak.

Bere funtzioa larrialdiko lehen arreta eskaintzea da, bai eta premien behin-behineko balorazioa egitea ere, eta beharrezkoa den guztietan:

- a. larrialdia gertatu den lekura joan, kaltetutako pertsonei arreta emateko;
- b. premia-egoerak "in situ" hautematea;
- c. kaltetutako pertsonei dagokien lekuetara laguntzea (osasun-zentroak, polizia-bulegoak, bulego judizialak...);
- d. beharrezkoa den guztia, ahal bezain laster Gizarte Zerbitzuen Sistemako zerbitzu eta zentroetara bideratzea, larrialdiko garraioa, otorduak eta/edo ostatua eskainiz.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Zerbitzua krisi egoeran edo larrialdi sozialean dauden herritar guztiei zuzenduta dago.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Ez dago gizarte-larrialdietarako koordinazio-zerbitzura sartzeko administrazio-baldintzarik, gizarte-larrialdia bera baino.

Zenbat balio du zerbitzu honek?

Doako zerbitzua da.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru Aldundiei dagokie Gizarte Larrialdietarako Koordinazio Zerbitzua ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Gizarte Larrialdietako Zerbitzuetan. **Araba:** Telefonoa: 945 16 12 10 (8:00etatik a 22:00etara)

Bizkaia: Telefonoa: 944 025 050

Gipuzkoa: Tel: 943 22 44 11 (7:00etatik 21:00etara) **SOS Deiak** Tel: 112 (eguneko 24 orduetan)

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)